

Philip Pullman  
*Tximeleta tatuajea*  
Itzultzailea: Koro Navarro  
Erein, Bioleta Saila  
Donostia, 2003

### **Fatalitatea, halabeharra**

Erein argialetxeak joan den urtean bertan Ramon Saizarbitoriaren *Kandinskyren tradizioa* obrarekin zabaldu zuen Bioleta Sailak *Tximeleta tatuajea* izeneko eleberri honen bitartez izan zuen segida. “Heldu gazteei” zuzendutako bilduma dela dirudi, nahiz eta liburuetan hartzaileen soslaiatz ezer aipatzen ez den; edonola ere, orain arteko tituluak protagonista eta ardatz nagusi neska-mutil gazteak izateak hala pentsatzeko bidea eman digu.

*Tximeleta tatuajea* genero jakin batean sailkatu beharko bagenu, *thriller* edo intrigazko eleberrigintzaren barruan sartu beharko genuke. Chris protagonista gazteak Barry izeneko iragan iluneko gizon batentzat lan egiten du aldi baterako eta, lanean ari zen egun batean, Jenny izeneko iragan zorigaiztoko neska batekin maitemindu da. Gertakariak, ordea, korapilatu egiten dira, eta fatalitateak amaiera zoriontsua eragotzi ez ezik, akabera tragikoa eskatu ere eskatu egiten du. Ez gabiltza, baina, irakurleak jakin beharko ez lukeen ezer argitzen; izan ere, lehen esalditik bertatik jakin dezakegu zer gertatuko den: “Ekain hasierako gau epel batean, Oxfordeko unibertsitate-egoitza bateko udako dantzaldian, ezagutu zuen Chris Marshallek hil behar zuen neska”. Desafio ederra edozein narratzailearentzat hala hastea! Eta, kasu honetan, Pullmanek ederki erantzuten dio desafio horri, azken unea arte tentsioari eutsiz eta ustekabeak ekarriz, alde zuzenetik iragarritako bukaeraraino iritsi baino lehen.

Kontakizunari jar dakioken eragozpen bakarra, gure uste apalean beti ere, narratzailearen aukera da. Ohiko *thriller*-etako ikuspuntu fokalizatuetatik aldenduz, Pullmanek narratzaile orojakilea aukeratu du eta, hala, sinesgarritasun handia ostu dio istorioari. Halabeharrak, narrazioaren ardatzetako bat, ez dirudi hainbesteko halabehar era guztietako informazioak txisteratik ateratzen dituen narratzaile horren ahotik.

Istorioaren beste ardatz nagusia xalotasuna edo inozentzia (errugabetasuna?) galtzeari buruzkoa da; eta, hain zuzen ere, gai horren gunea gaizkilearen diskurtsoan egoteak beste perspektiba bat ematen dio gaiari: “Errugabetasun hori galtzea da *benetako* ezagutzara iristeko lehenengo urratsa. Jakintzara iristeko urratsa, nahiago baduzu (...) Gauza bat zer den ez badakizu, ezin duzu ez onik ez kalterik egin. Paradoxa da, ezta?

(...) Mundu honetan, zuhaitz horren fruitua dastatu duen jendeak egiten du benetako ona. Eta gogorra eta mingarria gertatzen zaie (...)” (171. or.).

Itzulpena, Koro Navarro itzulpeneko azken Euskadi saridunaren eskutik, zuzena da oro har, eta irakurgarritasun handikoa.

Manu Lopez Gaseni